

SOZIOLOGIA HEZKUNTZAN TAILERRA

Dokumentu honetan Soziologia hezkuntzan tailerren atera ziren ideien laburpena jaso da.

HELBURUA ETA BISIOA

Helburua: curriculumean soziologia txertatzean zein helburu eduki beharko genukeen eta hori arrakastaz egiteak zein onura ekarriko ligukeen (10-20 urte barru) identifikatzea

Idea zaparrada:

Helburuen artean ideia hauek aipatu ziren:

- Helburu lokala eta globala. Lokala, hiztun kontzientek, aktiboak eta ahaldunduta lortzea: zer den hizkuntza gutxitu bateko hiztuna izatea. Globala, mundu mailako egoera ezagutzea, hor euskara kokatzeko.
- Soziologia zer den jakitea eta oinarriko formazio bat ematea.
- Testuingurua ulertzen laguntzea. EHko egoera soziologikoa zein eskolako eskualdekoa lantzea, horrek ohituretan duen eragina ulertzeko.
- Hausnarketa soziologikoa kritiko bat egiteko gaitasuna dutenak, eta konturatzen direnak hizkuntza bakoitzak zein balio duen.
- Besteen hizkuntza erabilera ulertzea eta enpatizatzea.
- Jarrerak eta portaerak lantzea. Baliabideak ematea, ikasleek jokaera enpatikoak eta asertiboak garatu ahal izateko.
- Atxikimendua garatzea.
- Euskararen aldaerak/aniztasuna ezagutzea eta balioan jartzea
- Diagnostiko mailakatu bat egiteko tresnak ematea: mundua, EH, herria, familia, norbera.
- Hizkuntza aniztasuna baloratzea. Hizkuntzak ukipen egoeran daudenean sortzen diren errealitatea zein arazoak ezagutzea eta

ulertzea. Hizkuntza gutxitu baten kide direla kontziente izatea. Diglosiak gure bizitzan dituen ondorioak ulertzea, eta estres linguistiko egoeratan nola jokatu jakitea

- Nondik gatozen jakitea. Euskararen bilakaera historikoaren berri izatea.
- Eraldaketa soziolinguistikoa ezagutzeko eta interpretatzeko gai izatea, eta hautuek duten garrantzia ulertzea.

Hona hemen onuren artean aipatutako ideak:

- Ikuspegi kritikoa sortzea eta diskurtsok lantzea.
- Aurreiritziei buelta ematea eta jarrera positiboa izatea. Hizkuntzaren normalizazioa erraztuko luke.
- Euskararen erabileran eragitea
- Euskal komunitatea indartzea. Euskal hiztunen komunitate kontzientziaduna: herritar kritikagoak, aktiboak motibatuagoak izatea.
- Gizarte kuestionatuagoa. Elkarbizitzaren kontrako diskurtsuak ahultzea, deuseztatzea edo hobeto kudeatzea. Euskaldun gaituagoak izango ginateke eta hizkuntza-gatazkak saihestea edota hobeto kudeatzea lagunduko luke.
- Hautu indibidualetatik kolektiboetara pasatzea
- Nora goazen horretan eurak funtsezko eragileak izan daitezkeela ohartaraztea.

CURRICULUMERAKO ELEMENTUAK

Helburua: LHn eta DBHn, soziolinguistikaren eremuko zein gaitasun, jarrera eta eduki landu beharko liratekeen identifikatzea

Idea zaparrada:

Landu beharreko gaitasunei dagokienez, ideia hauek aipatu ziren:

- Errealitate soziolinguistikoa interpretatzeko gaitasuna. Hizkuntza desorekak identifikatu. Gizarteko hizkuntza aniztasunaren balioestea
- Errealitate soziolinguistikoa hobetzeko agente aktiboak izatea
- EHko egoera soziolinguistikoa ulertzeko gai izatea, zergatik/nolatan sortzen diren.
- Hizkuntza desberdinekiko ditugun pertzepzioak zein portaerak eta horietan eragiten duten aldagaiak identifikatzea. Hizkuntza tentsio egoeretan asertibitatea
- Komunikazio-egoera bakoitzak eskatzen duen erregistrora egokitzeko gai izatea.

- Hizkuntza-hautuen atzean dauden aldagaiak identifikatzeko gai izatea (diglosia/simetriaren diskurtsoa). Horren aurrean bereizketa egiteko gai izatea.
- Nortasun propio bat garatzeko gai izatea. Nigandik hasi; pertsona moduan nola sentitzen naiz, hiltun gisa > zein hizkuntza praktika ditut > nola sentitzen ditut > hori dena identifikatzeko gai izatea.
- Hizkuntzarekin lotutako sentimenduen identifikazioa
- Euskararen normalizazio bidean, praktika zehatzak barneratzea. Euskararen komunitatearen partaidea izatea zer den jakitea

Edukiaren aldetik, ideia hauek jaso ziren:

- Terminologia eta kontzeptu soziolinguistikoak: Munduko hizkuntza aniztasuna, hizkuntza biografia, hizkuntza-ekologia, hizkuntza-ukipena, hizkuntza desoreka eta honen arrazoiak, hizkuntza gutxitu eta gutxiagotuak, hizkuntzen prestigioa, Hizkuntza-mudantzak
- Hizkuntza-arauak ...
- Balioak: ekitatea, justizia soziala, interseksionalitatea (botere-harremanak
- Komunikazioaren oinarrizko mekanismoak
- Testuinguru soziolinguistikoak
- Hizkuntza-hautua baldintzatzen duten eta erabileran eragiten duten faktoreak, estres linguistikoa...
- Gelako hizkuntzak eta herriko hizkuntzak
- Hizkuntza ofizial eta koofizialak
- Euskararen aldaerak
- Hizkuntza erregistroak. Ahozkotasuna
- Eleaniztasuna
- Gutxitze eta biziberritze prozesuak. Nola heldu gara honaino? "0" puntua zein da? Zer gertatu da historian egoera honetara iristeko? (bestela ematen du abiapuntua egungo egoera dela, eta nonbaitetik dator). Erreparazio historikoa.
- Hizkuntza politikak
- Hizkuntza-eskubide kolektiboak eta indibidualak. Lege markoa EAEn eta Nafarroan, eta Ipar Euskal Herrian
- Hiltun profilak
- Hizkuntzaren erregistroak
- Erabilera formala eta ez formala
- Euskararen eta euskal komunitatearen historia soziala, *zer da euskaldun izatea?* Euskararen eta euskararen aldeko mugimenduaren historia

Hona hemen aipatutako landu beharreko jarrerak:

- Asertibitatea, kritikotasuna, enpatia, proaktibotasuna (alde egon vs egin), sentsibilizazioa, motibazioa, aktibazioa, positibotasuna, euskararekiko maitasuna.
- Ikuspegi irekia, kolektiboa eta inklusiboa. Hizkuntza ekologia (jarrera moduan).
- Berdintasuna bultzatzea → ekitatea.
- Errespetuzko jarrerak. Entzute aktiboa.
- Hizkuntzak eta hizkuntza-aniztasuna balioan jartzea
- Gizarte elebidun eta eleaniztasun batean eskatzen duen errespetua eta enpatia
- Norberak hitz egiten dituen hizkuntzekiko jarrera positiboa izatea
- Besteen hizkuntzak eta ibilbide linguistikoa balioan jartzea
- Hizkuntzen inguruan ikasi eta hobetzeko jarrera proaktiboak

Hona hemen horrekin lotuta atera ziren beste ideia batzuk:

- Curriculumean maila berean jartzen dira euskararen eta gaztelaniaren egoera
- Curriculumean ez da kontuan hartzen EH osoko ikuspegia
- Unibertsitatean honen inguruan zer lantzen den aztertzea, lotura egotea. Irakasleen prestakuntza eta koherentzia linguistikoa
- Hezkuntza soziolinguistikoa instituzionalizatu behar da
- Familiak kontuan hartu eta hauekin sozializatu
- Eskola espazio segurua izatea
- Euskara erakargarritasunarekin lotu

APLIKAZIOA ETA INPLEMENTAZIOA

Helburua: erabili beharko genukeen metodologiari buruzko hausnarketa egitea

Idea zaparrada:

Hona hemen, metodologiari buruzko atera ziren ideak batzuk:

- Metodologia aktiboa, positiboa eta erakargarria, gertukoa, ludikoa, atsegina, bizia, erreferentziak, sinesgarritasuna (eredugarri izan), parte-hartzailea, hausnarketarako tarteak eskainiko dituen, motibazioa piztuko duena...

- Hausnarketa bideratuko duen metodologia parte-hartzailea. Gogoeta sustatu, bide edo tresna ezberdinen bidez. Ikas-egoeratan eta erronketan oinarrituta. Teoriatik praktikarako bidea baino, praktikatik teoriarako bidea hartu
- Integrala: Hezkuntza komunitate osoari eragingo diona. Eskola osoak adostutako metodologia, logika baten barnean. Kanpora begira ekimenak antolatzea (komunitate zerbitzua). Herri hezitzaileak; euskararen inguruko elkarte eta eragileekin elkarlanean, beste ikastetxeekin, udalarekin...
- Egoera soziolinguistikoaren arabeko metodologiak. Ekintzan oinarritutako metodologia: ingurunea eta baita norbere burua ikertu eta ulertzeko
- Esperientziala, gorputzetik pasatu behar du. Emozioak kontuan hartu: bizipenak eta ezagutza praktikoa. Egoera soziolinguistiko ezberdinetan dauden ikasleak elkartu; fisikoki edo birtualki.. *Korrika*. Gatazkak probokatu... edota gela barruan egon daitezkeen gatazken inguruan gogoetatu... egoera soziolinguistiko ezberdinak ezagutarazteko era horretan. HIGA gazteagoentzat: Hizkuntza komunitate ezberdinetako gazteak elkartzea / Topaketak antolatzea eta kulturartekotasuna sustatzea. Belaunaldien arteko hartu-emanak (aiton-amonek eurek bizitakoa kontatzea).
- Ikerketaren bidez esperimendu: ikertzaile bihurtu ikasleak (hizkuntza-paisaia aztertu...)
- TELP tailerrak. Besteen tokian jartzeko ariketa eta amaieran berriz itzuli norberaren bizipenetara, egindako hautuetara.
- Norberaren esperientzietatik abiatuta: Hizkuntza biografiak edo hizkuntzaren ibaiak erabili. Norberak hizkuntzarekin izandako ibilbidea azaldu/aztertu/ konpartitu
- 3 urratseko bidea; 1, adin txikian: sentimenduak. 2, helduagoekin, edukiak, ezagutza; 3, hausnarketa, gogoeta kritikoa.
- Zeharkako lanketa, interdiziplinarra. *Zirimiri* efektua (ikasgai eta irakasle gehienek konplize/arduradun)
- Ikuspegi ludikoa: musikaren bitartez, *gamifikazioa* (jokoekin zerikusirik ez duten jardueretan jokoaren teknikak erabiltzean datza, hartzailearen jarreraren aldaketa bat eragiteko.)
- Erreferenteak. Gertukoa izatea: haien interesak kontuan hartu.